BERMEOKO UDALAREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN, "ORTUBE ONTZIAREN LAGUN ELKARTEA"REN, FUNDACIÓN MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO-BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOAREN ETA BIZKAIKOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, ORTUBE ARRANTZA-ONTZIA BERRESKURATZEKO ETA ZABALTZEKO ZAHARBERRITZE-PROIEKTUA EGITEKO.

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE BERMEO, LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, "ORTUBE ONTZIAREN LAGUN ELKARTEA", LA FUNDACIÓN MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO–BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA, Y BIZKAIKOA, PARA LA REALIZACIÓN DEL PROYECTO DE RESTAURACIÓN PARA LA RECUPERACIÓN Y DIFUSIÓN DEL PESQUERO ORTUBE.

Bilbon, 2023ko ren (e)(a)n

En Bilbao, a de de 2023

BILDU DIRENAK

REUNIDOS

Lorea Bilbao Ibarra andrea, **Bizkaiko Foru Aldundi**ko (IFZ P4800000D) Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua den aldetik, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak zein Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen 2020ko abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak ezarritako eskumenen arabera.

Dª. Lorea Bilbao Ibarra, en calidad de diputada de Euskera, Cultura y Deporte de la **Diputación Foral de Bizkaia** (NIF P4800000D), a tenor de las facultades que le son propias en virtud de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, y de las competencias que le corresponden en desarrollo de lo establecido en el decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte.

Aritz Abaroa Cantuariense jauna, **Bermeoko Udal**eko (IFZ P4802100J) alkate gisa, Osoko Bilkurak 2019ko ekainaren 15ean hartutako erabakia dela bide, udal horretako idazkari nagusiak 2019ko uztailaren 16an emandako ziurtagiriaren arabera.

D. Aritz Abaroa Cantuariense, en calidad de Alcalde-Presidente del **Ayuntamiento de Bermeo** (NIF P4802100J), en virtud del acuerdo plenario de 15 de junio de 2019, tal y como consta en la certificación expedida el 16 de julio de 2019 por la Secretaria General del citado Ayuntamiento.

Juan Andrés Díez de Ulzurrun y Moreno jauna, "**Ortube Ontziaren Lagun Elkarte**"ko (IFZ G95976601) presidente gisa, 2019ko urriaren 12ko erabakiaren arabera izendatua, eta entitate horren Estatutuen 22. artikuluak ematen dizkion ordezkaritza-ahalmenekin bat etorriz.

D. Juan Andrés Díez de Ulzurrun y Moreno, en calidad de Presidente de la asociación "**Ortube Ontziaren Lagun Elkartea**" (NIF G95976601), nombrado según acuerdo de fecha 12 de octubre de 2019, y de conformidad con las facultades de representación que le atribuye el artículo 22 de sus Estatutos.

Jon Ruigómez Matxin jauna, **Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao–Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa**ren (IFZ G48891725) zuzendaria den aldetik, Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao-Bilboko

D. Jon Ruigómez Matxin, en calidad de Director de la **Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao–Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa** (NIF G48891725), a tenor de lo dispuesto en el acuerdo adoptado por la

Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioaren Patronatuko batzordeak, 2010eko uztailaren 23an, hartutako erabakiaren arabera, eta aipatutako Fundazioaren izenean eta ordezkaritzan, eta azken horrek 2011ko urtarrilaren 25ean emandako ahalmenarekin bat, eta Bilboko Notarioaren, José Antonio Isusi Ezcurdia jaunaren, aurrean egun bereko eskritura publikoan jasota dagoen moduan, 247 protokolo zenbakiarekin.

Asier Madarieta Juaristi jauna, BizkaiKOAko (IFZ Q4800720G) zuzendari-kudeatzailea den aldetik -José Antonio Isusi Ezcurdia notarioaren aurrean 2011ko otsailaren 8an emandako izendapen- eta premiamendu-eskrituraren arabera, 470 protokolo-zenbakia duena- eta erakunde hori sortzeari buruzko abenduaren 22ko 5/2010 Foru Arauaren 25.c) artikuluak emandako ahalmenak ere erabiliz.

ADIERAZI DUTE

I. Euskal itsas ondarea (euskal herritarron itsas eta arrantza tradizio bereziak sorrarazitakoa) izaera desberdineko elementuek osatzen dute, higiezinak, higigarriak, baita immaterialak ere, itsas jarduerari lotutakoak; Euskal Ondare Kulturalaren atal handi bat hartzen dute, geure lurraren kultura eta bizitzeko modua islatzen baitute.

Hala ere, itsas ondare horren zati garrantzitsu bat desagertzeko arrisku larrian dago: hain zuzen ere, egurrezko itsasontziek eta ontzi tradizionalek osatzen duten ondare materiala, elementu guztiekin, egurrezko ontziak eraikitzeari buruzko ezagutzak eratzen duen ondare immaterialarekin batera.

II. Arrisku-egoera horretan dago Bermeoko udalaren jabetzakoa den «Ortube» arrantza-ontzia. Zurezko azken hiru ontzi handietako bat da, nabigatzeko aukera ematen duena, Euskadin bizirik dirauena eta, dituen ezaugarriengatik, XX. mendeko Bizkaiko eraikuntza-garapenaren adibide dena, baita gaur egungo Bermeo arrantza-iraganarekin ainguratzeko elementua ere.

Junta del Patronato de la Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao-Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa en fecha 23 de julio de 2010, y en nombre y representación de dicha Fundación, de acuerdo con el poder otorgado por esta última el 25 de enero de 2011, según consta en la escritura pública de la misma fecha ante el Notario de Bilbao D. José Antonio Isusi Ezcurdia, con número de su protocolo 247.

D. Asier Madarieta Juaristi, en calidad de director-gerente de BizkaiKOA (NIF Q4800720G) -según resulta de la escritura de nombramiento y apoderamiento otorgada ante el Notario D. José Antonio Isusi Ezcurdia en fecha de 8 de febrero de 2011, con el número 470 de los de su protocolo- y haciendo uso de las facultades otorgadas también por el artículo 25.c) de la Norma Foral 5/2010, de 22 de diciembre, de creación de dicha entidad.

EXPONEN

I. Que el patrimonio marítimo vasco -generado por la secular tradición marítima y pesquera del pueblo vasco- se halla integrado por elementos de diferente naturaleza -muebles, inmuebles e incluso de carácter inmaterial- vinculados a la actividad marítima, que constituyen una parte importante del Patrimonio Cultural Vasco, en cuanto reflejo de una cultura y un modo de vivir de nuestra propia tierra.

Que, no obstante, una parte importante de este patrimonio marítimo sufre un riesgo importante de desaparición: en concreto el patrimonio material que forman las embarcaciones de madera y los astilleros tradicionales con todos sus elementos, junto con el patrimonio inmaterial constituido por el conocimiento sobre la construcción de barcos de madera.

II. Es en esta situación de riesgo en la que se encuentra el pesquero "Ortube", propiedad del Ayuntamiento de Bermeo, el cual constituye una de las tres últimas embarcaciones de madera de gran tamaño, con posibilidades de navegar, que sobreviven en Euskadi y que, por sus características, es ejemplo del desarrollo

constructivo en Bizkaia en el siglo XX, así como elemento de anclaje del Bermeo actual con su pasado pesquero.

III. Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da hitzarmen hau sinatzea, bertan ordezkatuta dauden erakunde guztien ahaleginak eta ekimenak bateratzeko, Ortube berreskuratzeko proiektu bat gauzatzeko, zurezko erriberako ontziolen ondarea berreskuratzeko eta babesteko proiektu gisa, eta ontzi adierazgarri hori zabaltzeko proiektu gisa.

III. Que, por todo ello, se considera necesaria la suscripción del presente convenio, a fin de aunar los esfuerzos e iniciativas de todas las entidades representadas en el mismo, para llevar a cabo un proyecto de restauración para la recuperación del Ortube, en cuanto proyecto de recuperación y defensa del patrimonio de los astilleros de ribera en madera, y también de difusión de dicha representativa embarcación.

IV. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailari dagokio Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritako foru-eskumenak erabiltzea Bizkaiko ondare historiko eta kulturala ikertzeko, kontserbatzeko, zabaltzeko eta kudeatzeko, sail horren egitura organikoaren erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak ematen dizkion eskuduntzekin bat etorriz.

IV. Que corresponde al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia el ejercicio de las competencias forales establecidas en la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, para investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, de conformidad con las atribuciones que le otorga el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 131/2020, de 29 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica de dicho departamento.

Ildo horretan, azpimarratu behar da ontzi-ondarearen kultura-balioak adierazgarritasun historikoan, estetikoan, zientifikoan, politikoan edo sozialean oinarritzen direla, eta ondare-kudeaketaren jardun-helburu nagusia balio horiek behar bezala transmititzea dela. Horregatik, administrazio eskudunen artean estrategia komunik ez zegoenez, eta ontzi-ondarearen egungo babes espezifikorik ez zegoenez, Bizkaiko Foru Aldundiak, 2016ko martxoaren 22an, lankidetza-protokolo bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Euskal Itsas Ondarea Zuzentzeko Plan bat egiteko, euskal itsas ondarea kudeatzeko, kontserbatzeko eta haren balioa nabarmentzeko ekintza koordinatu bat artikulatzeko, eta, horren bidez, egurrezko ontzien kudeaketari arreta berezia eskainiz, horien degradazio-prozesuak saihesteko, bai eta haien berezko balioak transmititzeko ere. Horrela, protokolo hori gauzatze aldera, euskal portuetan dauden elementuen inbentarioa egin da. Inbentario hori erreferentzia da, ondoren, Plan Zuzentzaile hori idazteko eta garatzeko.

En este sentido debe destacarse que los valores culturales del patrimonio naval se fundamentan en su significatividad histórica, estética, científica, política o social, siendo el objetivo fundamental de actuación de la gestión patrimonial la adecuada transmisión de dichos valores. Por ello, ante la falta de estrategia común existente entre las diferentes Administraciones competentes y la actual falta de protección específica del patrimonio naval, la Diputación Foral de Bizkaia, en fecha 22 de marzo de 2016, firmó un protocolo de colaboración con el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Gipuzkoa, para la elaboración de un Plan Rector del Patrimonio Marítimo Vasco que articule una acción coordinada en materia de gestión, conservación y puesta en valor del patrimonio marítimo vasco, dedicando especial atención a la gestión de las embarcaciones de madera -a fin de evitar procesos de degradación de las mismas-, así como a la transmisión de sus valores intrínsecos. Así, en ejecución de dicho protocolo, se ha realizado un inventario de los elementos existentes en

los puertos vascos, que constituye la referencia para la posterior redacción y desarrollo del citado Plan Rector.

Hori dela eta, Euskara, Kultura eta Kirol foru sailaren ustez, Bizkaiko gizartearentzat eta euskal gizartearentzat balio ukaezina da Ortube arrantza-ontziak osatzen duen ontzi-ondarea kontserbatzea, eta jakin badaki, foru-laguntzarik gabe, galdu egin daitekeela, eta, horren ondorioz, azken urteotan itsasontzian egin diren zaharberritze-lanen zati bat finantzatzen lagundu du.

Por ello, en esta línea, el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte considera de indudable valor para la sociedad de Bizkaia, y para la vasca en su conjunto, la conservación del patrimonio naval constituido por el pesquero Ortube, y es consciente de que, sin la ayuda foral, puede llegar a perderse, lo que le ha llevado a contribuir en los últimos años a la financiación de parte de los trabajos de restauración que se han ido llevando a cabo en la embarcación.

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko azaroaren 20ko Erabakiaren bidez (gai-zerrendako 20. gaia), helburu horretarako diru-laguntza izendun bat emateko hitzarmena onartu zen (Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2018ko Aurrekontuei buruzko abenduaren 28ko 4/2017 Foru Arauan aurreikusia) Bermeoko Udalaren alde, 30.000 eurokoa, eta diru-laguntza hori bideratzeko hitzarmena 2018ko abenduaren 19an sinatu zen.

Así, mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de fecha 20 de noviembre de 2018 (asunto nº 20 del orden del día) se aprobó el convenio por el que se concedió para dicha finalidad una subvención nominativa -prevista en la Norma Foral 4/2017, de 28 de diciembre, de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para 2018- a favor del Ayuntamiento de Bermeo, por importe de 30.000 euros, firmándose el convenio de instrumentación de dicha subvención en fecha 19 de diciembre de 2018.

Eta hurrengo ekitaldian, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko azaroaren 26ko Erabakiaren bidez (gai-zerrendako 38. gaia), helburu bererako beste diru-laguntza izendun bat emateko hitzarmena onartu zen -Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2019rako Aurrekontuei buruzko abenduaren 27ko 8/2018 Foru Arauan aurreikusitako diru-laguntza– Bermeoko Udalaren alde, 20.000 eurokoa, eta diru-laguntza hori bideratzeko hitzarmena 2019ko abenduaren 30ean sinatu zen.

Y en el siguiente ejercicio, mediante Acuerdo de la Diputación Foral de Bizkaia de fecha 26 de noviembre de 2019 (asunto nº 38 del orden del día) se aprobó el convenio por el que se concedió también para la misma finalidad otra subvención nominativa -prevista en la Norma Foral 8/2018, de 27 de diciembre, de Presupuestos del Territorio Histórico de Bizkaia para 2019- a favor del Ayuntamiento de Bermeo, por importe de 20.000 euros, firmándose el convenio de instrumentación de la subvención en fecha 30 de diciembre de 2019.

Horregatik guztiagatik, eta azaldutakoa oinarri hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak egokitzat jotzen du Ortube arrantza-ontzia berreskuratzen eta zabaltzen laguntzen jarraitzea, hitzarmen honen bidez.

Por todo ello, y en base a lo expuesto, la Diputación Foral de Bizkaia considera oportuno seguir colaborando, mediante el presente convenio, en la recuperación y difusión del pesquero Ortube.

V. Bermeoko Udalak, Ortube ontziaren jabeak, kultura-garrantzi eta interes orokor handikotzat jotzen du, bai Bermeoko udalerriarentzat, bai Bizkaiko Lurralde Historikoarentzat, ontzia berreskuratzeko

V. Que el Ayuntamiento de Bermeo, propietario de la embarcación Ortube, considera de gran relevancia cultural e interés general, tanto para el municipio de Bermeo como para el Territorio Histórico de Bizkaia, su

zaharberritzea eta zabalkundea, eta, horretarako, hitzarmen honetan udal-ondare historikoa babestu, kudeatu eta kontserbatzeko eta udal-ondarea kudeatzeko eskumenen babesean jarduten du. Eskumen horiek Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1 artikuluaren 21) eta 28) idatz-zatiek esleitzen dizkiote.

restauración para su recuperación y difusión, actuando para ello en el presente convenio al amparo de las competencias de protección, gestión y conservación del patrimonio histórico municipal, y de gestión del patrimonio municipal, que le atribuyen los apartados 21) y 28) del artículo 17.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

VI. "Ortube Ontziaren Lagun Elkartea" 2019ko abenduaren 3an inskribatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean, eta bere helburuen babesean jarduten du. Elkartearen estatutuen 2. artikuluan honela definitzen dira helburu horiek: "*Euskal itsas ondarea babestea; bereziki, zurez eraikitako ORTUBE izeneko baxurako arrantza-ontzia berreskuratzea, gaur egun Bermeoko portuan hondoa jota, nabigatzeko moduan utziz*". Ildo horretan, estatutu horien 28. artikuluak eskatzen du, elkarte horretan parte hartzeko, "*2. artikuluan adierazitako helburu sozialean boluntario laguntzailea izatea, bere lana ekarriz eta modu altruistan eta inolako ordainsaririk jaso gabe, ez zuzenean ez zeharka, egiten jakinez*".

VI. Que la asociación "Ortube Ontziaren Lagun Elkartea", inscrita en fecha de 3 de diciembre de 2019 en el Registro General de Asociaciones del País Vasco, actúa al amparo de los fines que tiene atribuidos, que en el artículo 2 de sus Estatutos se definen como "*Salvaguardar el patrimonio marítimo vasco, en especial con la recuperación del pesquero de bajura construido en madera denominado ORTUBE actualmente varado en el puerto de Bermeo dejándolo en condiciones de navegabilidad*". En este sentido el artículo 28 de dichos estatutos exige, como requisito para participar en dicha asociación "*Ser voluntario colaborador en el objeto social indicado en el artículo 2, aportando su trabajo y saber hacer de modo altruista y sin percepción retributiva alguna ni directa ni indirectamente*".

Ortube elkartea ontzia berreskuratzeko lanean ari da sortu zenetik. Ordutik hainbat eremutan egindako lanek (erriberako arotzeria, mekanika, elektrizitatea, elektronika, gainazalen tratamendua eta beste espezialitate batzuk) berreskuratze-maila handia lortu dute, eta itsasontziak gaur egun arte irautea ahalbidetu dute.

La asociación Ortube lleva trabajando en la recuperación de la embarcación desde su creación. Los trabajos realizados desde entonces en diferentes ámbitos (carpintería de ribera, mecánica, electricidad, electrónica, tratamiento de superficies y otras especialidades) han obtenido un alto grado de recuperación, permitiendo que el barco perviva hasta la actualidad.

Denbora horretan, gainera, bere garaian itsasontziaren eraikuntzan eta mantentze-lanetan lan egin zuten hainbat tailer espezializaturen laguntza izan da, hala nola Bermeoko ontziolak, Bermeoimega, Gastetxu tailerrak, Irurabat, SKV, Bermeoprint eta Bombas Azcue, besteak beste.

Durante este tiempo, además, se ha contado con la colaboración de diferentes talleres especializados que en su día trabajaron tanto en la construcción, como en el mantenimiento del barco, tales como, Astilleros de Bermeo, Bermeoimega, Talleres Gastetxu, Irurabat, SKV, Bermeoprint y Bombas Azcue, entre otros.

Elkarteko boluntarioek materialak, ezagutza eta lana eskuzabaltasunez eman dituzte orain arte, eta Elkarteak materialen behin betiko dohaintza egiten dio proiektuari.

Las personas voluntarias de la asociación han aportado hasta la fecha materiales, conocimiento y trabajo de forma desinteresada, materiales que dicha asociación dona de forma permanente al proyecto.

VII. Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao-Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioak -1996ko maiatzaren 31n eratu zen, Bilboko notario José Mª Arriola Arana jaunaren aurrean emandako eskritura publikoan jasota dagoenez, eta 1.548 zenbakiko protokoloarekin– Bizkaiko Lurralde Historikorako interes handiko lan aitortua egiten du legatu historikoaren ikerketari, kontserbazioari eta hedapenari dagokienez, itsasoarekin zerikusia duten jarduera guztiak barne hartzen baitituzte, bere Estatutuen 3. artikuluan jasotako fundazioaren helburuekin bat etorriz; eta, gainera, artikulu horrek aurreikusten du "(…) *ildo berean bideratzen diren ekimen publiko eta pribatuekiko lankidetza, beste eremu batzuetako erakunde eta organismoekin harremanak eta lankidetza-programak izatea alde batera utzi gabe*".

VII. Que la Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao-Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa - constituida el 31 de mayo de 1996, según consta en la escritura pública otorgada en esa fecha ante D. José Mª Arriola Arana, Notario de Bilbao, y con protocolo nº 1.548- realiza una reconocida labor de gran interés para el Territorio Histórico de Bizkaia, en relación a la investigación, conservación y difusión del legado histórico que suponen todas las actividades relacionadas con el mar, en coherencia con los fines fundacionales recogidos en el artículo 3 de sus estatutos, el cual prevé además la "(…) *colaboración con cuantas iniciativas públicas y privadas se orienten en el mismo sentido, sin perjuicio de contactos y programas de colaboración con entidades y organismos de otros ámbitos*, (…)".

VIII. BizkaiKOA abenduaren 22ko 5/2010 Foru Arauaren bidez sortu zen, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol sailari atxikitako enpresa-erakunde publiko gisa, besteak beste, Bizkaiko Kultura Ondarearen hedapena sustatzeko jarduerak proposatu eta kudeatzeko.

VIII. Que BizkaiKOA fue creada mediante Norma Foral 5/2010, de 22 de diciembre, como entidad pública empresarial adscrita al Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, para el desarrollo, entre otras, de funciones consistentes en proponer y gestionar actuaciones dirigidas al fomento de la difusión del Patrimonio Cultural de Bizkaia.

IX. Izenpetzaile guztiek adierazten dute ordezkatzen dituzten erakundeak ez daudela sartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan ezarritako debekuetako batean ere.

IX. Que todas las personas suscribientes declaran que las entidades a las que representan no se hallan incursas en ninguna de las prohibiciones establecidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

X. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera, hitzarmen honek lege horretako 47.2.a) artikuluan xedatutakoa betetzen du.

X. El presente Convenio responde a lo previsto en el artículo 47.2.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Ildo horri eutsiz, hitzarmen hau Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago. Izan ere, 6.1 artikuluak ezartzen duen bezala, lege honen esparrutik kanpo gelditzen dira lege honetan edo administrazio arau berezietan arautzen diren kontratuen edukiarekin bat ez datozen hitzarmenak, honako erakunde hauek beren artean egiten dituztenak: Estatuko Administrazio

En este sentido, este Convenio se encuentra excluido como tal, y en función de su contenido, del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, dado que, tal y como señala su artículo 6.1 quedan excluidos del ámbito de la presente Ley los convenios, cuyo contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales celebrados

Orokorrak, Gizarte Segurantzako Erakunde Kudeatzaileek eta Zerbitzu Arruntek, unibertsitate publikoek, autonomia erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoek, tokiko erakundeek, horien menpeko nortasun juridiko publikodun erakundeek eta nortasun juridiko pribatua duten entitateak (hauen kasuan, botere adjudikatzailea badute). Bere aldetik, 6.2 artikuluan adierazten denez, lege horren aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuko pertsona fisiko zein juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, betiere hitzarmen horien edukia ez badago sartuta lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan jasotako edukiaren barruan.

entre sí por la Administración General del Estado, las Entidades Gestoras y los Servicios Comunes de la Seguridad Social, las Universidades Públicas, las Comunidades Autónomas y las Ciudades Autónomas de Ceuta y Melilla, las Entidades locales, las entidades con personalidad jurídico pública de ellas dependientes y las entidades con personalidad jurídico privada, siempre que, en este último caso, tengan la condición de poder adjudicador. Por su parte, el artículo 6.2 señala que quedan excluidos del ámbito de dicha ley los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales.

XI. Azaldutako guztia oinarri hartuta, alderdiek hitzarmen hau itundu dute, honako estipulazio hauekin bat:

XI. Que, en base a todo lo expuesto, las partes han consensuado el presente convenio, a tenor de las siguientes

## ESTIPULAZIOAK

## ESTIPULACIONES

### Lehena.- Hitzarmenaren xedea.

Hitzarmen honen xedea da goian adierazitako erakunde guztien lankidetza-esparrua ezartzea eta arautzea, Ortube arrantza-ontzia berreskuratzeko eta zabaltzeko zaharberritze-proiektua egiteko eta gauzatzeko, honako estipulazio hauetan ezarritako baldintzetan eta konpromisoetan oinarrituta.

### Primera.- Objeto del convenio.

Es objeto del presente convenio establecer y regular el marco de colaboración de todas las entidades arriba indicadas en la elaboración y ejecución del proyecto de restauración para la recuperación y difusión del pesquero Ortube, en base a los términos y compromisos establecidos en las siguientes estipulaciones.

### Bigarrena. – Indarraldia.

Hitzarmen hau alderdi sinatzaile guztiek sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du eragina. Bi urteko indarraldia izango du, 2024an egindako lanak justifikatzeko ezarritakoa eragotzi gabe.

### Segunda. – Vigencia.

El presente convenio entrará en vigor al día siguiente de su suscripción por todas las partes firmantes y surtirá efecto desde el 1 de enero de 2023. Tendrá una vigencia de dos años, sin perjuicio de lo establecido para la justificación de los trabajos realizados en 2024.

### Hirugarrena.- Museo Marítimo Ría de Bilbao–Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioak bere gain hartutako betebeharrak.

### Tercera.- Obligaciones asumidas por la Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao–Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa.

Bilboko MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO-BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOAk honako betebehar hauek hartzen ditu bere gain:

a) <u>Ortube Berreskuratzeko Zaharberritze-Proiektua</u> idaztea. Hitzarmen honen babesean eta hitzarmena indarrean dagoen bitartean garatuko da, eta gutxienez honako hauek ezarriko ditu:

- Helburu zehatzak definitzea, ontzia zaharberritzeari dagokionez.
- Ontzia zaharberritzeko baliabideak antolatzea eta koordinatzea.
- Zaharberritze-lanen faseak eta egutegia.
- Aurreikusitako zaharberritze-jarduera guztien aurrekontu-zenbatespena, orokorra eta banakakoa.

Proiektu hori idazteko eta gauzatzeko, Ortube Elkartearen eta hitzarmen honetan jasotako gainerako alderdien laguntza izango da.

Proiektu hori gauzatzeko, zortzigarren estipulazioan araututako Jarraipen-batzordeak onartu beharko du aldez aurretik.

b) Ondarea zaharberritzeko lanen <u>zuzendaritza teknikoa</u> egitea; horretarako, Ortube Elkartearen laguntza ere izango du.

c) Jarraipen-batzordean zehazten diren fundazioaren giza baliabideak eta baliabide teknikoak Ortube berreskuratze-proiektuaren zerbitzura jartzea.

d) Ontzia zaharberritzeko prozesu osoa dokumentatzea.

La Fundación MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO-BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA FUNDAZIOA asume las siguientes obligaciones:

a) Redactar, el <u>Proyecto de Restauración para la Recuperación del Ortube</u> que se desarrollará al amparo del presente convenio y durante la vigencia del mismo, el cual establecerá, como mínimo:

- Definición de objetivos concretos, en relación con la restauración de la embarcación.
- Organización y coordinación de medios para la restauración de la embarcación.
- Fases y calendario de los trabajos de restauración.
- Estimación presupuestaria, global e individualizada, del conjunto de actuaciones de restauración previstas.

Para la redacción y ejecución de dicho proyecto se contará con la colaboración de la Asociación Ortube y con el resto de las partes incluidas en este convenio.

El proyecto, requerirá en todo caso su previa aprobación por la Comisión de Seguimiento regulada en la estipulación octava.

b) Llevar a cabo la <u>dirección técnica</u> de los trabajos de restauración patrimonial para lo que contará también con la colaboración de la Asociación Ortube.

c) Poner los recursos humanos y técnicos de la fundación que se determinen en la Comisión de Seguimiento, al servicio del proyecto para la recuperación del Ortube.

d) Llevar a cabo la documentación de todo el proceso de restauración de la embarcación.

e) Mantentze-plan bat idaztea, epe luzera ontzia behar bezala kontserbatu eta mantenduko dela bermatzeko, behin zaharberritze-lanak amaituta.

e) Redactar un Plan de Mantenimiento, que garantice a largo plazo la adecuada conservación y mantenimiento de la embarcación, una vez finalizadas las labores de restauración.

f) Hainbat enpresekin dituzten lankidetzak eta/edo babesak Ortubeko proiektuaren esku jartzea.

f) Facilitar sus colaboraciones y/o patrocinios con diferentes empresas para el proyecto de restauración del Ortube.

Lan horiek Ortube Ontziaren Lagun Elkarteak orain arte egindako guztia kontuan hartuta egingo dira, eta hitzarmen honen zortzigarren estipulazioan jasotako Jarraipen-batzordean koordinatu, jarraitu eta adostuko dira alde guztiekin.

Estos trabajos se harán teniendo en cuenta todo lo realizado hasta la fecha por la Asociación Ortube Ontziaren Lagun Elkartea, y serán coordinados, seguidos y consensuados con todas las partes en la Comisión de Seguimiento recogida en la estipulación octava del presente convenio.

Laugarrena.- Bermeoko Udalak bere gain hartutako betebeharrak.

Cuarta.- Obligaciones asumidas por el Ayuntamiento de Bermeo.

Bermeoko Udalak Ortube berreskuratzeko eta zabaltzeko zaharberritze-proiektuaren administrazio- eta aurrekontu-kudeaketa guztia bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du, portuko amarralekuei eta itsasontzirako sarbideari buruzko kudeaketa ekonomiko eta administratibo guztiak barne, eta, bereziki, horretarako beharrezkoak diren aseguruak harpidetu eta ordaintzeko konpromisoa.

El Ayuntamiento de Bermeo se compromete a asumir toda la gestión administrativa y presupuestaria del proyecto de restauración para la recuperación y difusión del Ortube, incluyendo la realización de todas las gestiones económicas y administrativas relativas a los amarres del barco en puerto y al acceso al barco y, especialmente, la suscripción y abono de los seguros que resulten necesarios a tal efecto.

Ortube berreskuratzeko eta zabaltzeko zaharberritze-proiektua gauzatzearen eta garatzearen kostua erabakitako kopurua baino handiagoa bada, soberakina Bermeoko Udalaren kontura izango da.

Si el coste de la ejecución y desarrollo del proyecto de restauración para la recuperación y difusión del Ortube excede de la cantidad acordada, el exceso correrá a cargo del Ayuntamiento de Bermeo.

Era berean, eta udal administrazio hori izango denez bosgarren estipulazioan ezarritako diru kopuruaren hartzaile zuzena, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuari aurkeztu beharko dio, aurrekontu-ekitaldi bakoitzeko martxoaren 1a baino lehen (egun hori barne), aurreko aurrekontu-ekitaldian egindako lanen justifikazio-memoria bat, lan horiek eragindako kostuen memoria ekonomikoarekin batera eta ordaindutako fakturen kopiak. 2024ko ekitaldian

Asimismo, y dado que dicha Administración municipal será la receptora directa de la cantidad establecida en la estipulación quinta, deberá presentar al Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, con anterioridad al día 1 de marzo (inclusive) de cada ejercicio presupuestario, una memoria justificativa de los trabajos realizados en el ejercicio presupuestario anterior, junto a una memoria económica de los costes generados por los mismos y copias de las facturas

egiten diren zaharberritze-lanei dagozkien memoriak (justifikaziokoak eta ekonomikoak) ordaindutako fakturen kopiekin batera, 2025eko martxoaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira (egun hori barne).

abonadas. Las memorias (justificativa y económica) y copias de las facturas correspondientes a los trabajos de restauración que se lleven a cabo en el ejercicio 2024, deberán ser presentadas con anterioridad al día 3 de marzo de 2025 (inclusive).

Gainera, Bermeoko Udalak honako betebehar hauek ditu:

Además, el Ayuntamiento de Bermeo queda obligado a:

1. Lankidetza Hitzarmen honen Jarraipen Batzordeak egin beharreko egiaztapen-jardueraren mende jartzea.

1. Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por la Comisión de Seguimiento de este Convenio de Colaboración.

2. Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan baitaitezke.

2. Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

3. Bizkaiko Foru Aldundiaren lankidetza zabaltzea, pankartetan, karteletan eta beste edozein hedabidetan Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa sartuz.

3. Difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

**Bosgarrena.- Bizkaiko Foru Aldundiak bere gain hartutako betebeharrak.**

**Quinta.- Obligaciones asumidas por la Diputación Foral de Bizkaia.**

Bizkaiko Foru Aldundiak konpromisoa hartzen du Bermeoko Udalari (IFZ P4802100J), Ortubeko berreskuratzeko zaharberritze-proiektua kudeatzeko arduraduna eta ontziaren titularra den aldetik, EHUN ETA BERROGEI MILA EURO (140.000) ordaintzeko, aurrekontuetako 0404/G/333103/73299 2017/0028 partidaren kargura. Diru hori honako urte hauetan banatuko da:

La Diputación Foral de Bizkaia se compromete a abonar al Ayuntamiento de Bermeo (NIF P4802100J) -en su calidad de Administración titular de la embarcación y responsable de la gestión del proyecto de restauración para la recuperación del Ortube- la cantidad de CIENTO CUARENTA MIL EUROS (140.000), con cargo a la partida 0404/G/333103/73299 2017/0028, que se distribuirá en las siguientes anualidades:

| URTEA/AÑO | ZENBATEKOA/IMPORTE (€) |
|---|---|
| 2023 | 40.000,00 |
| 2024 | 100.000,00 |

Bermeoko Udalak zenbateko hori erabili beharko du aurreikusitako aurrekontu-ekitaldi bakoitzean proiektu hau egin eta gauzatzeak eragindako gastuak ordaintzeko, udal-administrazio horrek egindako esleipenetan ateratzen diren prezioen arabera.

Hala, 2023ko urteko ordainketa hitzarmen hau sinatu ondoren egingo da, eta 2024koa, berriz, ekitaldiko lehen hiruhilekoan, Ondare Zerbitzuak 2023ko ekitaldiari dagokion justifikazioa egiaztatu ondoren.

Ordaindu aurretik, Bermeoko Udalak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatuko da, eta ez dela zorduna itzulketaren bidezkotasunari buruzko ebazpena dela bide.

**Seigarrena.- Ortube Ontziaren Lagun Elkarteak bere gain hartutako betebeharrak.**

Ortube Ontziaren Lagun Elkarteak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Elkartea osatzen duten boluntarioen ezagutza, esperientzia eta lana eskaintzea.
- Ortube arrantza-ontzia berreskuratzeko zaharberritze-proiektua idazten eta zuzentzen laguntzea, hitzarmen honen xedeak lortzeko beharrezkoak diren bitartekoak koordinatuz eta antolatuz.
- Lanen egutegia idazten laguntzea.
- Dagokion aurrekontua egiten laguntzea.
- Etorkizuneko Eragiketa eta Mantentze Plana idazten laguntzea.
- Ortubeko Zabalkunde Planaren idazketan eta bertan sartzen diren jardueren garapenean parte hartzea.

**Zazpigarrena.- BIZKAIKOAk bere gain hartutako betebeharrak.**

El Ayuntamiento de Bermeo deberá destinar ese importe al abono de los gastos ocasionados por la realización y ejecución de este proyecto en cada uno de los ejercicios presupuestarios previstos, de acuerdo con los precios que resulten en las adjudicaciones realizadas por dicha Administración municipal.

Así, el abono de la anualidad de 2023 se realizará tras la firma del presente convenio y la correspondiente a 2024 se realizará en el primer trimestre del ejercicio, previa comprobación por el Servicio de Patrimonio de la justificación correspondiente al ejercicio 2023.

Previo al pago, se comprobará que el Ayuntamiento de Bermeo se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no es deudora por resolución de procedencia de reintegro.

**Sexta.- Obligaciones asumidas por “Ortube Ontziaren Lagun Elkartea”.**

La asociación “Ortube Ontziaren Lagun Elkartea” se compromete a:

- Aportar el conocimiento, experiencia y trabajo de las personas voluntarias que conforman la asociación.
- Colaborar en la redacción del proyecto de restauración para la recuperación del pesquero Ortube, así como en su dirección; coordinando y organizando los medios necesarios para la consecución de los fines objeto de este convenio.
- Contribuir en la redacción de un calendario de los trabajos.
- Colaborar en la confección del correspondiente presupuesto.
- Colaborar en la redacción del futuro plan de Operaciones y Mantenimiento.
- Participar en la redacción del Plan de Difusión del Ortube y en el desarrollo de las actividades que se incluyan en el mismo.

**Séptima.- Obligaciones asumidas por BIZKAIKOA.**

BizkaiKOAk Ortube Zabalkunde Plan bat diseinatzeko konpromisoa hartu du. Plan horretan, zaharberritze-lanen hedapen-jarduerak eta itsasontziaren hedapen-jarduerak (bereziki, bisita gidatuak eta itsasontziko irteerak) antolatu eta kudeatuko dira.

Zabalkunde-plan hori Jarraipen-batzordean aurkeztu beharko da 2023. urtean, batzordeak onar dezan.

Zortzigarrena.- Jarraipen Batzordea.

Hitzarmen honen arabera hartutako konpromisoen jarraipena eta kontrola egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, erakunde sinatzaile bakoitzeko ordezkari banarekin.

Jarraipen Batzordearen eginkizunen artean honako hauek daude: hitzarmen hau behar bezala betetzen dela bermatzeko beharrezko koordinazioa eta kontrola, hitzarmena aplikatzeko irizpideak ezartzea, eta sor litezkeen interpretazio- eta betetze-gatazkak konpontzea.

Batzordea hitzarmen honen sinadura datatik hiru hilabeteko epean bilduko da nahitaez, Ortube berreskuratzeko zaharberritze-proiektua eta haren hedapen-plana onartzeko.

Era berean, hitzarmena ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan bilduko da nahitaez, hitzarmen hau gauzatzearen emaitzak ebaluatzeko. Nolanahi ere, indarraldian beste bilera batzuk deitu ahal izango dira, alderdi interesdunetako edozeinek eskatuta.

Hitzarmenean Jarraipen Batzordeari buruz berariaz aurreikusi ez den guztian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluko 3. atalean araututako kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

BIZKAIKOA se compromete a diseñar un Plan de Difusión del Ortube, que comprenderá la organización y gestión, tanto de las actividades de difusión de los trabajos de restauración, como de las actividades de difusión del barco (en especial las visitas guiadas y salidas en barco).

Dicho Plan de Difusión deberá ser presentado a la Comisión de Seguimiento a lo largo del año 2023, para su necesaria aprobación por la misma.

Octava.- Comisión de Seguimiento.

A fin de realizar el seguimiento y control de los compromisos asumidos en virtud del presente convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento, compuesta por una persona representante de cada una de las entidades suscribientes.

Entre las funciones de la Comisión de Seguimiento se encuentran la coordinación y el control necesarios para garantizar el correcto cumplimiento del presente convenio, establecer los criterios de aplicación del convenio, y resolver los eventuales conflictos de interpretación y cumplimiento que pudiesen surgir.

La misma se reunirá obligatoriamente en un plazo máximo de 3 meses desde la firma de este convenio, para la aprobación del proyecto de restauración para la recuperación del Ortube y su Plan de Difusión.

Asimismo, se reunirá obligatoriamente durante el primer trimestre de cada ejercicio, en aras a evaluar los resultados de la ejecución del presente convenio, sin perjuicio de que puedan ser convocadas otras reuniones durante el período de vigencia del mismo, a instancias de cualquiera de las partes interesadas.

En lo no previsto expresamente en el convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Bederatzigarrena.- Hitzarmena interpretatzea eta aldatzea.

Hitzarmen honen ondorioz sortzen diren interpretazio-arazoak eta hitzarmena aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen eztabaidak hitzarmena sinatzen duten alderdiek ebatziko dituzte, elkarren artean adostuta, Jarraipen Batzordean, hargatik eragotzi gabe alderdi sinatzaile bakoitzak bere eskumen esklusiboari esleitutako gaietan dituen ahalmenak.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluko g) letran xedatutakoaren arabera, hitzarmena aldatu ahal izango da, alderdiek hala eskatzen badute. Horretarako, dagokion gehigarria formalizatu beharko da, eta hari erantsiko zaio.

Hamargarrena.- Hitzarmena azkentzeko arrazoiak.

Hitzarmen hau azkendu egingo da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat gertatzeagatik:

a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hitzarmenaren luzapena erabaki gabe.

b) Alderdi sinatzaile guztien aho bateko akordioa.

c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea, betiere hori erabakigarria bada hitzarmenaren amaiera betetzeko.

d) Aldeetako baten alde bakarreko erabakia, hitzarmenaren helburua bete ahal izateko erabakigarria bada.

Alde bakarreko erabaki hori erabakigarria ez bada hitzarmenaren helburua betetzeko, eta gainerako sinatzaileek horretan laguntzen jarraitzeko borondateari eusten badiote, alde bakarreko erabaki horrek ez du ekarriko hitzarmena azkentzea.

Novena.- Interpretación y modificación del convenio.

Las cuestiones de interpretación que se deriven del presente convenio, así como las controversias que puedan suscitarse con motivo de su aplicación, se resolverán por las partes firmantes del convenio de mutuo acuerdo, en el seno de la Comisión de Seguimiento, sin perjuicio de las facultades de cada parte firmante de las materias atribuidas a su exclusiva competencia.

En virtud de lo dispuesto en el artículo 49, letra g, de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Convenio podrá ser modificado de común acuerdo cuando las partes lo requieran, mediante la formalización de la correspondiente adenda, que se incorporará al mismo.

Décima.- Causas de extinción del convenio.

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en alguna de las siguientes causas de resolución:

a) El transcurso del plazo de vigencia del convenio sin haberse acordado la prórroga del mismo.

b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.

c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguna de las firmantes, siempre que ello fuera determinante para el cumplimento del fin del convenio.

d) Por decisión unilateral de una de las partes, en el caso de que sea determinante para poder cumplir con el fin del Convenio.

Si esta decisión unilateral no fuera determinante para cumplir con el fin del convenio y el resto de firmantes mantienen su voluntad de seguir colaborando en él, dicha decisión unilateral no implicará su extinción.

e) Hitzarmena deusez deklaratzen duen erabaki judizialagatik.

f) Ordenamendu juridikoan aurreikusita dagoen beste edozein arrazoirengatik.

Hitzarmen hau azkentzen bada, likidatu egingo da, alde bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko, eta, horretarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Likidazio horrek berekin ekarriko du, nolanahi ere, Bizkaiko Foru Aldundiak Bermeoko Udalaren aldeko bostgarren estipulazioan aurreikusitako ordainketak bertan behera uztea.

Hamaikagarrena.- Araubide juridikoa.

Hitzarmen honetan aurrez ikusten ez diren gai guztietan, hauek aplikatu beharko dira: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Aurrekontuei buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailea, eta aplikatu beharreko gainerako xedapen guztiak.

Hamabigarrena.- Gatazkak konpontzea.

Hitzarmen honen izaera juridiko-administratiboa dela eta, hitzarmena aplikatzean eta gauzatzean sor daitezkeen auziak, zortzigarren estipulazioan araututako Jarraipen-batzordeak ebatzi ezin dituenak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

Hamahirugarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Hitzarmen hau betetzean datu pertsonalak tratatzen badira, kasu horretan aplikatu beharreko babes-

e) Por decisión judicial declaratoria de la nulidad del convenio.

f) Por cualquier otra causa distinta de las anteriores prevista en el ordenamiento jurídico.

La extinción del presente convenio dará lugar a la liquidación del mismo, con el objeto de determinar las obligaciones y compromisos de cada una de las partes, para lo que se estará a lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Dicha liquidación implicará, en todo caso, el cese de los abonos previstos en la estipulación quinta a favor del Ayuntamiento de Bermeo, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Undécima.- Régimen jurídico.

Para todo lo no previsto en el presente convenio, será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, el Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, y su Reglamento, así como cualquier otra disposición que pudiera resultar de aplicación.

Duodécima.- Resolución de conflictos.

Dada la naturaleza jurídico-administrativa del presente convenio, las cuestiones litigiosas que pudieran surgir en la aplicación y ejecución del mismo, y que no puedan resolverse por la Comisión de Seguimiento regulada en la estipulación octava, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso administrativo.

Decimotercera.- Protección de Datos.

En caso de derivarse de la ejecución del presente convenio el tratamiento de datos carácter personal, el

araubidea honako hauetan ezarritakoa izango da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

Hamalaugarrena.- Azkena.

Hitzarmen hau irakurri ondoren, alderdiek berretsi eta baieztatzen dute hitzarmenaren edukia, eta, ados daudela adierazteko, bost aletan sinatzen dute, adierazitako tokian eta egunean.

régimen de protección aplicable al mismo vendrá dado por el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos , y por la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

Decimocuarta.- Final.

Tras la lectura del presente convenio las partes otorgantes se ratifican y afirman en su contenido, y en prueba de conformidad, lo firman por quintuplicado, en el lugar y fecha indicados.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua
*La diputada de Euskera, Cultura y Deporte*

Sta./Fdo.: Lorea Bilbao Ibarra

Bermeoko Udala
Alkatea / *Alcalde*

Sta./Fdo.: Aritz Abaroa Cantuariense

Ortube Ontziaren Lagun Elkartea
Presidentea / *Presidente*

Sta./Fdo.: Juan Andrés Díez de Ulzurrun y Moreno

Fundación Museo Marítimo Ría de Bilbao–Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa Fundazioa
Zuzendaria / *Director*

Sta./Fdo.: Jon Ruigómez Matxin

BizkaiKOA
Zuzendari-kudeatzailea / *Director-gerente*

Sta./Fdo.: Asier Madarieta Juaristi